

2025-2026 BI URTEKO PLANA

eLankidetza

1	Sarrera eta abiapuntua	3
2	Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak	4
3	Laguntzen eta dirulaguntzen esparrua	5
4	Eragile anitzeko elkarrizketa-prozesua	8
5	Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren koherentzia eta koordinazioa	12
6	Ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa	15
7	Komunikazioa, gardentasuna eta kontuak ematea	18
8	Plangintza	20
9	Kudeaketa	21
10	Aurrekontua	22
11	Jarraipena	23

1 Sarrera eta abiapuntua

Eusko Jaurlaritzak hainbat urtetarako planen bidez planifikatu du bere lankidetzak- eta elkartasun-politika 2005etik. Orain arte, plangintza horrek arreta handia jarri du eLankidetzak-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren edo arlo horretan ardura duten aurreko zuzendaritzen jardueran.

eLankidetzako 2018-2024 aldirako IV. Gida Planean, begiradaren gabezia hori gainditzearen alde egiten dugu. Hala, koherentzia eta koordinazioa ikuspegi gisa hartu nahi ditugu, garapen jasangarrirako politiken koherentzia jardura estrategikoaren ardatz izan dadin, eta Eusko Jaurlaritzako beste sail, erakunde eta organismo batzuekin hainbat ekimen bultzatu nahi ditugu esperientzia pilotu gisa, koherentziari eta koordinazioari dagokienez.

[Lankidetzarako eta Elkartasunerako 2024ko otsailaren 15eko 3/2024 Legeak](#) (3/2024 Legea, aurrerantzean) plangintzaren esparru berri bat ezarri du eta Gobernu-ikuspegi bateratuaren alde egin du. Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren lankidetzarako eta elkartasunerako hainbat urteko plangintza definitu beharko da. Gobernuaren esparru bateratu horretan, eLankidetzak bere plangintza propioa zehaztu beharko du. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarako eta elkartasunerako plan hori oraindik ez dago definituta eta marko horren barruan sartuko litzateke eLankidetzaren plangintza.

Bestalde, [2018-2024ko IV. Gida Planaren amaierako ebaluazioak](#) jasotzen du azkenaldian ezarritako ildo batzuetan sakontzen eta zabaltzen jarraitu behar dela, egiteke dauden gogoetak identifikatzen ditu eta 3/2024 Legearen esparruan dauden hainbat erronka aipatzen ditu. Gainera, nabarmentzen du elkarrizketa-prozesu bat egin beharra dagoela eragileen artean eLankidetzaren lankidetzarako eta elkartasunerako politikarekin lotutako erronkei buruz, datozen urteetarako politikaren helburuak zehaztu ahal izateko.

Deskribatutako testuinguru hori aintzat hartuta, *trantsizioko* 2025-2026 Bi Urteko Plana definitzea erabaki dugu, urte hauetan zehar Gobernu osoaren plangintza zehazteko eta elkarrizketa-prozesu bat garatzeko, eta hala, eLankidetzak sustatutako politikaren helburuak definitu aurretik egiteke dauden gogoetak eta erronkak jorrazteko. Gainera, eLankidetzak laguntzetarako eta dirulaguntzetarako esparru bat izan behar du eta datozen urteetan egingo ditugun ekintzak modu koherentean antolatzeke eta lehenesteko apustua egiten dugu. Hain zuzen ere, plan operatibo horrek bi alderdi horiei erantzungo die. Hortaz, dokumentu honek:

- Laguntzetarako eta dirulaguntzetarako erreferentzia-esparrua finkatzen du, eta bertan zehazten dira zeharkako beharrak, behar sektorialak eta geografikoak eta neurri positiboak. 2025-2026 aldira aurreikusitako tresnak eta funts banagarriak ere jasotzen ditu –3. atala–.
- Egiteke dauden erronkak eta gogoetak jorrazteko sustatu nahi den eragile anitzeko elkarrizketa-prozesua azaltzen du –4. atala–.
- Garatuko diren ekintzak definitzen ditu. Hauei buruzkoak izango dira ekintzak: lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren koherentzia eta koordinazioa; ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa; komunikazioa, gardentasuna eta kontuak ematea; eta plangintza eta kudeaketa –5etik 9ra bitarteko atalak–.

Aurrekoaz gain, 2025-2026 Bi Urteko Plan honek jasotzen ditu lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak –2. atala–, aurreikusitako aurrekontua –10. atala– eta 2025-2026 Bi Urteko Planaren jarraipen-sistema –11. atala–.

Bi urte horiek amaitzean, eLankidetzaren plangintza berria definituta egongo da, 2027tik aurrera sustatu ahal izateko, eguneratuta eta 3/2024 Legearekin zein Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren hainbat urteko plangintzarekin bateratuta.

2 Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak

3/2024 Legearen 4. artikulua Euskadiren lankidetzarako eta elkartasunerako politika publikoaren helburuak ezartzen ditu. Esparru hori abiapuntutzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak zein eLankidetzak haien lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak definitu behar dituzte.

2018-2024ko IV. Gida Planaren ebaluazioak ondorioztatzen du eLankidetzaren lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak definitu aurretik, elkarrizketa-prozesu bat garatu behar dela Euskadiko lankidetzarako eta elkartasunerako sistemako eragileen artean, azken urteetan egiteke geratu diren eztabaidak zein 3/2024 Legeak planteatzen dituen erronkak jorratzeko. Prozesu horretatik ateratzen diren ondorioetan oinarrituta definituko dira eLankidetzaren lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak.

eLankidetzaren lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak ezartzeko elkarrizketa-prozesu hori 2025 eta 2026an egitea aurreikusten dugunez, 2025-2026 Bi Urteko Plan honek **3/2024 Legearen helburuak** hartzen ditu bere gain. Hala, gure ekintzek helburu hauek izan ditzakete:

- Pobrezia eta bazterkeria sortzen duten egiturazko arrazoiak eraldatzeko ekarpena egitea, batez ere Hegoaldeko herrialdeetan, eta **giza garapena eta jasangarritasuna** sustatzea, horri dagokionez adosten diren munduko agendei ekarpena eginez.
- Desberdintasunen aurka borrokatzea eta, giza eskubideen nazioarteko esparruan, **justizia globala** sustatzea, batez ere dimentsio ekonomikoan, sozialean, generokoan eta ingurumenekoan. Horretarako, nagusi diren kulturako, ekonomiako eta gizarteko ereduentzako alternatibak zabalduko dira eta jardunbide demokratikoak, parekideak, solidarioak eta jasangarriak ezarriko dira.
- Gizarte askeak, demokratikoak, bakezaleak eta inklusiboak sustatzea eta herrien arteko **elkarbizitza globala** bultzatzea. Helburu hori lortzeko, giza eskubideen defentsan eta bere aplikazio-agendan, gobernantza demokratikoan, bakearen eraikuntzan eta herritartasun aktibo eta konprometituan sakonduko da.
- Balio solidarioak sustatu eta **euskal gizartearen eta erakundeen mobilizazioa** bultzatuko da, herritarrek goian aipatutako helburuak betetzeko duten protagonismoa nabarmentzeko, besteak beste, gizarte-eraldaketarako hezkuntza-prozesuen bidez.
- **Antolatutako gizarte zibileko erakundeak indartzea eta laguntzea**, bai Euskadikoak, bai Hegoaldeko herrialde eta lurraldeetakoak, elkarleen ehundura sustatuz, gizarte demokratikoan, inklusiboen, horizontalen eta eraldatzaileen ikur baitira.

3 Laguntzen eta dirulaguntzen esparrua

2025-2026 Bi Urteko Plan hau eLankidetzaren laguntzetarako eta dirulaguntzetarako erreferentzia-esparrua da eta 2018-2024ko IV. Gida Planaren zeharkako lehenetasunen, lehenetasun sektorialen eta geografikoen aldeko apustua mantentzen du eta berrikuntza batzuk ere baditu, 3/2024 Legearen planteamendua eta IV. Gida Planaren ebaluaziotik ateratako ondorioak direla eta.

- Azken urteetan sustatutako **zeharkako lehenetasunak** mantentzen ditugu: tokiko gaitasunak, parte-hartzea eta antolakuntza, genero-berdintasuna eta feminismoak, giza eskubideak, jasangarritasun ekologikoa eta tokikoa-globala.
- Giza garapena, jasangarritasuna, justizia globala, bizikidetzak globala, elkarrekin ehunduraren indartzea eta euskal gizartearen eta erakundearen mobilizazioa sustatzeko ahalik eta gaitasun, baliabide eta ezagutza gehien mobilizatzearen aldeko apustua egiten dugu. Horregatik, diruz lagundu ahal izango dira 3/2024 Legearen helburuak (4. artikulua) betetzeko prozesuak eta proiektuak.

Testuinguru horretan, IV. Gida Planaren bi **sektoreko lehenetasunak** mantendu ditugu: emakumeen ahalduntzea eta giza eskubideen defendatzaileak babestea. Gainera, ekintza humanitarioan gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk lehenestetik, gatazken eraldaketarako eta bakea eraikitzeko ikuspegi zabalago bat lehenestera igaro gara. Hiru lehenetasun sektorial horiek 2025ean eta 2026an aplikatuko dira.

Aurrekoaz gain, sektoreko laugarren lehenetasun bat erantsi dugu, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta ingurumena babesteko trantsizio ekosozialaren esparruan. Azken lehenetasun horren dimentsioa eta irismena 2025ean zehar zehaztu beharko da, hala badagokio 2026tik aurrera aplikatzeko. Gogoeta- eta zehaztapen-prozesu horretan, IHOBEn laguntza izango dugu besteak beste.

- Garapenerako laguntza ofiziala jaso dezaketen Hegoaldeko herrialdeetan eta lurraldeetan prozesuak eta proiektuak diruz laguntzeko eta babesteko aukera ematen dugu, leku horietako pobrezia, desberdintasunen, indarkeriaren edo askotariko diskriminazioen mailagatik jardutea beharrezkoa baldin bada (3/2024 Legearen 1.4 artikulua).

Testuinguru horretan, eLankidetzak azken bi urtetan sustatutako **lehenetasun geografikoak** mantendu ditu: Afrika¹, Hegoaldeko lehenetasun geografiko bakar gisa, eta Euskadi, eraldaketa sozialerako hezkuntzarekin lotuta. Gainera, arreta berezia jarriko diogu Palestinako eta Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoko (SEAD) egoerari.

- Dirulaguntza-tresna bakoitzaren deialdietan, zeharkako lehenetasunen, lehenetasun sektorialen eta geografikoen irismena zehaztuko da. Eta eLankidetzaren 2025-2026 aldiko funts banagarrien urteko aurrekontuaren erreserban IV. Gida Planean ezarritako **ekintza positiboak** mantenduko ditugu: (i) Hegoaldeko elkarte feministek parte hartzen duten ekimenak (% 10); (ii) emakumeen ahalduntzea sustatzeko ekimenak (% 20); giza eskubideen defendatzaileak babesteko ekimenak (% 4) eta gatazken eta beste indarkeria-egoera batzuen gaineko arreta ekintza humanitarioan (% 9); eta (iii) Afrikan (% 25) eta Euskadin (% 13) garatutako ekimenak. Gainera, 2026tik aurrera klima aldaketaren aurka borroka egiteko eta ingurumena babesteko lehenetasun sektorialarekin lotutako ekintza positibo bat ezar liteke, trantsizio ekosozialaren esparruan.

Hurrengo infografian modu agerikoan eta laburrean daude jasota zeharkako lehenetasunak, sektorialak eta geografikoak, bai eta aurrekontu-erreserba gisa adierazitako ekintza positiboak ere.

¹ 2025eko eta 2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoetan, tresna bakoitzean Afrikari dagokionez dauden berriazko erreserbak zehaztuko dira.

Laguntzen eta dirulaguntzen esparrua



Tresnei dagokienez, 2025-2026 aldian, proiektuen (PRO) hiru atalen, programen (PGM), ekintza humanitarioko estrategien eta proiektuen (EHE eta PRE), genero-berdintasunaren aldeko erakunde aldaketa-prozesuen (GBA), lankidetzako eta elkartasuneko profesionalen espezializazio-beken (BEK) eta Ignacio Ellacuria sariaren (SAR) deialdiak argitaratzea aurreikusten dugu, hurrengo orriko taulan ikusten den moduan.

Laguntzen eta dirulaguntzen deialdien kudeaketarekin batera, bi urte hauetan, hainbat ekintza egingo ditugu tresnen esparrua berrikusteko, administrazioa sinplifikatzeko eta lankidetzarako eta elkartasunerako dirulaguntzen araudi espezifikoak zehazteko:

- eLankidetzaren tresnen esparrua berrikusten jarraituko dugu, 2025-2026 aldian definituko dugun lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak egokitzeko. Zehatzago, proiektuen tresnen ebaluazio mistoa eta ekimenen eta lagundutako prozesuen hainbat ebaluazio egingo ditugu eta pertsonekin lotuta dauden eLankidetzaren tresnak berrikusiko ditugu.
- Lankidetzaren finantzarioaren modalitate berria definitzeko aurrerapausoak ematen jarraituko dugu, Finantzen Euskal Institutuaren eskutik. Gainera, 2025-2026 aldian, Hego globalerako gizarte-inpaktuari buruzko funts pilotu bat abian jartzea aurreikusten da.
- Desburokratizazioaren eta sinplifikazio administratiboaren alde lana egiten jarraituko dugu. Horri dagokionez, hurrengo urratsa izango da dirulaguntzen tresnen aldaketa onartzea, Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak ezarritakora egokitu daitezen. Gainera, lankidetzaren eta elkartasunaren arloko dirulaguntzen araudi espezifiko bat garatuko dugu, 20/2023 eta 3/2024 Legeetan ezarritakoa jarraituz, izapideak arintzeko eta sinplifikatzeko eta sustatutako jarduketan efizientzia handitzeko.

2025ean eta 2026an, **instrumentu bakoitzaren araberako baliabideen zuzkidura** planteatuko dugu (urtean banatu daitezkeen funtsak banatzea), 2018-2024ko IV. Gida Planean lortutako exekuzio-ehunekoen ildotik.

Tresnak

GIZARTE ERALDAKETA	GARAPENERAKO LANKIDETZA, Hegoaldeko herrialdeetan oinarrituta <i>(PRO K1-K2 tresna + zuzeneko lankidetzak)</i>	50-70 %
	TOKIKOA-GLOBALA Ikuspegiaren aldeko apustua, Iparra-Hegoa eta lankidetzaz- heziketa logikak gaituz <i>(PGM tresna + zuzeneko lankidetzak)</i>	5-10 %
	GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA, Euskadin oinarritua, lotura globalekin <i>(PRO K3 tresna + zuzeneko lankidetzak)</i>	10-15 %
	IGNACIO ELLACURIA SARIA <i>(SAR tresna)</i>	<0,1 %
KRISI HUMANITARIOEI ERANTZUTEA	EKINTZA HUMANITARIOA, Hegoaldeko herrialdeetan oinarrituta eta ekintzekin Iparaldean <i>(EHE y PRE tresnak + zuzeneko lankidetzak)</i>	10-20 %
ERAGILEAK INDARTZEA	GENERO BERDINTASUNAREN ALDE ERAKUNDEA ALDATZEA <i>(GBA tresna)</i>	<1,5 %
	ELANKIDETZAKO ESPEZIALIZAZIO BEKAK <i>(BEK tresna)</i>	<0,5 %
	ARTIKULATZEA, GAITASUNAK INDARTZEA ETA EZAGUTZAK MOBILIZATZEA <i>(zuzeneko lankidetzak)</i>	5-10 %

Lehia bidezko hainbat laguntzaren eta dirulaguntzaren deialdia egiteaz gain, 2025ean eta 2026an zuzeneko lankidetzarako ekimenak sustatuko ditugu. eLankidetzaren zuzeneko lankidetzarako funtsen batura guztia urtean bana daitezkeen funtsen % 15 baino txikiagoa izango da. Zuzeneko lankidetzak hauei zuzenduta egongo da ahal dela²:

- Zeharkako lehenetsunetan, sektorialetan eta geografikoetan sakontzea eta 3. atal honetan ezarritako ekintza positiboaren aurrekontu-erreserbak betetzea.
- Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren koherentzia eta koordinazioarekin –5. atala–, ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketarekin –6. atala– eta komunikazioarekin, gardentasunarekin eta kontuak ematearekin –7. atala– lotutako plan honetako lan-ildoak garatzea.
- Lankidetzarako eta elkartasunerako eragileen gaitasunak indartzea.
- Larrialdiei eta krisi humanitarioei erantzuteko deialdiei eta funts globalei ekarpena egitea.
- Ahultasun demokratikoko, polarizazio sozial eta politikoko eta espazio zibikoa ixteko testuinguruak eta egoerak erantzutea.
- Lankidetzarako eta elkartasunerako modalitate eta tresna berriak aztertzea, batez ere lankidetzak finantzarioarekin lotuta.
- Aztertze proiektu pilotuak eta berritzaileak sustatzea.

² Ditugun erronka-testuinguruak diela eta, beharrezkoa da malgutasunerako tartea uztea. Horregatik, beste jarduketak-ildo batzuk aurreikusitako ahal izango dira –zuzeneko lankidetzaren arloan– egoera horiei erantzuteko.

4 Eragile anitzeko elkarrizketa-prozesua

2018-2024ko IV. Gida Planaren ebaluazioak ondorioztatzen du Euskadiko lankidetzarako eta elkartasunerako ekosistemako eragileen artean elkarrizketa-prozesu bat garatu behar dela, azken urteetan egiteke geratu diren debeteak zein 3/2024 Legeak planteatzen dituen erronkak jorrazteko. Elkarrizketa-prozesu horrekin lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sistema birpentsatu edo birkokatuko da eta ondorio batzuk utziko dizkigu, eLankidetzaren lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak horien gainean definitzeko.

Elkarrizketa-prozesuaren plangintza definitzeko, 2024ko azken lauhilekoan lantalde misto bat osatu genuen eLankidetzaren eta kanpo-aholkulari baten artean, honetarako:

- Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sistemaren egungo *egoera identifikatzeko*, etorkizuneko elkarrizketak diseinatzeko oinarritzko intsumo gisa.
- Lehenetsunez jorrazteko beharrek *eragileak eta gaiak definitzeko*.
- Datozen bi urteetan egin beharrek *elkarrizketa nagusiak egituratzeko*.
- Elkarrizketak modu arrakastatsuan egiteko *beharrezko baldintzak deskribatzeko*.

Kanpo-aholkulariak, eLankidetzarekin koordinazioan eta elkarrizketan, bost elkarrizketa izan zituen lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sistemako eragileekin eta bi lan-tailer egin zituen –bat euskal sistemako eragileekin eta beste eLankidetzako lantaldearekin–. Gainera, hainbat eragileko elkarrizketaren proposamena perfilatzeko, dokumentu instituzionalak berrikusi ziren eta lan-saioak egin ziren aholkulariaren eta eLankidetzaren prozesua sustatu duten langileen artean.

Aurreko horren ondorioz, aholkulariak [ezarpen-proposamen](#) bat definitu zuen eta lehenetsuneko bi elkarrizketa –(i) lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sistema birkokatzea eta (ii) erakundeen artikulazioa eta koherentzia– eta etorkizuneko elkarrizketa bat –(iii) enpresa-sektoreak Euskadiko lankidetzan eta elkartasunean duen rola– egitea gomendatzen du.

Datozen bi urtetan zehar, eLankidetzaren apustua da hiru elkarrizketa horiek egitea, baina intentsitate eta ezartzeko modalitate desberdinekin:

- Lankidetzarako eta Elkartasunerako euskal sistema birkokatzea. 2025-2026 aldian intentsitate handienarekin egingo dugun proposamena da, eragile anitzeko elkarrizketa-prozesuaren baitan Jarraian, atal honetan, prozesu horren plangintza eta irismena zehaztuko ditugu.
- Erakundeen artikulazioa eta koherentzia. Ez dugu planteatzen elkarrizketa-prozesu bat garatzea bere horretan. Eskuragarri dauden espazioetan koherentzia eta koordinazioan egindako lanean sakonduko dugu, gai horretan lehenetsitako ekintzen bidez, dokumentu honetako 5. atalean jasotzen den moduan.
- Euskadiko lankidetzako eta elkartasuneko enpresa-sektorea Elkarrizketa hori 2026an hastea proposatzen dugu, gogoetarako bi espazio desberdin zehaztuz –bat gizarte-sektorearekin eta bestea sektore ekonomikoarekin– eta, aurrerago, elkarrizketarako espazio bakarrean elkartuko dira. Dokumentu honetako 5. atalean daude jasota prozesu horren hasierako ekintzak.

Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sistemarekin lotutako **eragile anitzeko elkarrizketa-prozesuaren** helburua izango da azken urteetan egiteke geratu diren gogoetak eta 3/2024 Legearen erronkak jorraztea. Prozesu horretatik eratorritako ondorioek eta adostasunek elikatu beharko dituzte lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak eta eLankidetzaren hainbat urteko plangintzan xertatu beharko dira 2027tik aurrera.

Nola planteatzen dugu eragile anitzeko elkarrizketa-prozesua?


Eragile anitzeko elkarrizketa-prozesuak 18 hilabeteko iraupena izango du gutxi gorabehera. Prozesu hori garatzeko, Elkarrizketa Talde bat eratuko da eta, halaber, Talde Nagusi Iraunkor bat – lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sistemaren 12/15 ordezkari³– eta Saio Bakoitzeko Talde Handiago bat izango ditu –jorrotzen den gaiarekin lotutako 8/9 pertsona–. Talde Nagusi Iraunkorrak elkarrizketa-prozesuko saio guztietan hartuko du parte 18 hilabetetan zehar, eta jorrotzen den gai bakoitzeko Saio Bakoitzeko Talde Handiago bat eratuko da.

Gainera, Kanpoko Adituen laguntza izango da, bai gure ingurune hurbilekoena, bai Hegoaldeko herrialdeetakoena, jorrotutako gai bakoitzaren gaineko gogoeta egiten laguntzeko.

Eragile anitzeko elkarrizketa-prozesu horren sustapen politikoa eta teknikoa bermatzeko, eLankidetzak Talde Eragile bat sortuko du –lidergo politikoa izango du– eta Idazkaritza Tekniko baten laguntza izango du –prozesu osoa kudeatzeaz arduratuko da–. Halaber, Gaietako Barneko Adituak definituko dira – dagokion gaiaren elkarrizketaren planteamendua definitzen lagunduko dute eta eLankidetzak jorrotutako gai bakoitzaren gainean egindako gogoeta gidatuko dute–. Horrez gain, eLankidetzak kanpoko aholkularitzen laguntza eduki ahal izango du, prozesu hori egokitzeko eta garatzeko.

2025eko lehen hiruhilekoan, xeheago definitu eta zehaztuko dira gobernantza-sistema eta eragile anitzeko elkarrizketa-prozesurako eragileak.

Eragile anitzeko elkarrizketa-prozesuaren gobernantza-sistema



Zer erronka jorrotuko ditugu?

Erronkei dagokienez elkarrizketarako lehenetsitako gaiak hauek dira:

- Sarrerako esparrua: elkarrizketa eta dekolonialitatea.
- Lankidetzeta feminista.
- Giza eskubideak eta bakea eraikitzea.
- Trantsizio ekosoziala eta klima-aldaketa.
- Tokikoa-globala ikuspegia.
- Euskadiko lankidetzarako eta elkartasunerako sektorearen jasangarritasuna eta finantzaketa.

³ Talde Nagusi Iraunkorraren osiera 2025eko lehen hiruhilekoan definitu beharko da. Eragile anitzeko elkarrizketa-prozesu baten ezaugarriak eta beharrak oinarritzat hartuta, lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sisteman eragileek ordezkariak orekatu izatea bilatuko da.

Nola jorratuko ditugu erronkak?

Planteamendua da prozesua bi hilean behin egingo diren aurrez aurreko saio tematikoetatik abiatzea – erronka bakoitzeko bana–. Saio horietan Elkarrizketa Taldeak hartuko du parte –bai Talde Nagusi Iraunkorrak, bai dagokion Saio Bakoitzeko Talde Handiagoak–.

Aurrez aurreko saio tematikoaren aurretik, online konferentzia ireki bat egingo da Kanpoko Adituekin eta kontzeptu-ohar bat partekatuko da, testuinguruan jartzeko eta aurrez aurreko saio tematikoa egiteko intsumoak sortzeko. Aurrez aurreko saio tematikoan, jorratutako erronkaren gaineko elkarrizketa garatuko da. Eta, aurrez aurreko saioaren ostean, akta bat eta eLankidetzak gaiarekiko duen jarreraren gaineko ohar bat egingo da, 2027tik aurrerako plangintza definitzen laguntzeko.


Gainera, prozesu osoak barne-garapena izango du eLankidetzan, hainbat gairen gaineko ikuspegi partekatua eraikitzen joateko talde barruan. Ikuspegi horren gaineko elkarrizketa eta gogoeta izango da.

Saioen planteamendua



Hurrengo diagraman daude jasota prozesuaren planteamendu orokorra eta kronograma.

Prozesuaren egitura



Gaiaren Barne-Adituak: barne-gogoeta gidatzen dute, Kanpo-Adituak kudeatzen dituzte, Saio Bakoitzeko Talde Handiagoak identifikatzen dituzte, kontzeptu-oharra egiteko prozesua ikuskatzen dute, Idazkaritza Teknikoarekin koordinatzen dira, kokapen-oharra gidatzen dute eta aurrez aurreko saio tematikoetan hartzen dute parte.

Idazkaritza teknikoak: prozesuaren logistika garatzen du, Elkarrizketa Taldea kudeatzen du, online konferentzien deialdiak egiten ditu, saioak diseinatzen ditu, Gaiaren Barne-Adituekin eta Talde Eragilearekin koordinatzen du eta saioetako aktak idazten ditu.

Talde Eragilea: Gaiaren Barne-Adituak identifikatu eta laguntzen ditu, saioaren aurreko prozesua ikuskatzen du, Saio Bakoitzeko Talde Handiagoa identifikatzen du, kokapen-oharrak ikuskatzen ditu eta eLankidetzaren hurrengo hainbat urteko plana diseinatzeko prozesua artikulatzen du.



5 Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren koherentzia eta koordinazioa

3/2024 Legeak Euskadiko sektore publiko guztiari eta lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren alde egiten duten hainbat eragileri egiten die. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritza barruan garapen jasangarrirako politiken koherentziaren sustapenaren alde egiten jarraitzeko eta Euskadin erakunde arteko lana indartzeko egiten dugu lan. Gainera, erkidegoko, estatuko, Europako eta nazioarteko eragileekin ditugun artikulazioetan sakontzeko eta Euskadiko lankidetzarako eta elkartasunerako eragileekin gogoetarako espazioak garatzeko ekintzak bultzatuko ditugu, politikaren koherentzia eta koordinazioa sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren barne-arkitektura indartzea, garapen jasangarrirako politiken koherentziari dagokionez

Ekintza nagusiak	2025	2026
Gizarte Berrikuntza eta 2030 Agendaren Zuzendaritzarekin artikulatzea eta Gizarte Berrikuntza eta 2030 Agendaren Foroan parte hartzea –eta bertako Gobernantza Batzordean–, garapen jasangarrirako politiken koherentzia sustatzeko	X	X
Garapen jasangarrirako politiken koherentziaren arloan Eusko Jaurlaritzak egiten dituen estrategiak eta ekimenak planifikatzen laguntzea	X	X
eLankidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako beste sail, erakunde eta organismoen artean (gutxienez bi) jarduteko protokolo orokorrak eta lankidetzahitzarmenak onartzea	X	X
Kide anitzeko eta sailen arteko organoetan parte hartzea, eLankidetzak Hegoaldeko herrialdeen gainean duen ezagutza eta esperientzia garrantzitsua denean	X	X
Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren dekretu berria onartzea		X
Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldea dinamizatzea (hiru lan- edo prestakuntza-saio gutxienez urtean)	X	X

Eusko Jaurlaritzako sailek, erakundeek eta organismoak lankidetzarako eta elkartasunerako politika hedatzeko bultzada eta laguntza ematea

Ekintza nagusiak	2025	2026
Lankidetzarako jarduketak sustatzea Eusko Jaurlaritzako sailekin, erakundeekin eta organismoekin lankidetzan (urtean hamar gutxienez)	X	X

Eusko Jaurlaritzako sailek, erakundeek eta organismoek eLankidetzak sustatutako ezagutza mobilizatzeko esperientzietan parte hartzea (urtean bost gutxienez)	X	X
Gizarte Berrikuntza eta 2030 Agendako 2025-2028rako Planaren lankidetzarako eta elkartasunerako proiektu partekatuetan parte hartzea <i>Osasun Globala (Osasun Sailaren, Osakidetzaren, eLankidetzaren eta Ginea-Bissauko AIDAren jarduketa bateratua)</i>	X	X
<i>Hezkuntzaren Auzolana (UNRWAk, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eta eLankidetzak sustatutako palestinarrentzako lanbide heziketako ekimena)</i>	X	X
<i>Senegalen hondakinak kudeatzeko ekimena (IHOBE eta eLankidetzaren ekimena)</i>	X	X
Hezkuntza Sailarekin eta Zientzien, Unibertsitateen eta Berrikuntzaren Sailarekin koordinatzea hezkuntza formaleko curriculumean gizarte-eraldaketarako hezkuntza txertatzeko	X	X

Erakundeen arteko artikulazio eta koordinazio handiagoa Euskadin

Ekintza nagusiak	2025	2026
Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde Arteko Batzordearen dekretu berria onartzea		X
Lankidetzarako euskal erakunde publikoen koherentzia, koordinazioa eta osagarritasuna hobetzeko mekanismoak eta ekintzak garatzea	X	X
AKUALen (Erdialdeko Amerika-Euskadiko ur eta saneamenduaren arloko erakundearteko lankidetz programari) 2024-2027ko hirugarren edizioa garatzea eta sustatzea	X	X
Saint-Louisen (Senegal) erakunde arteko ekimen bat sustatzea	X	X
Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria etengabe eguneratzea eta hobetzea <i>Datuak kargatzea eta urteko memoria egitea</i>	X	X
<i>Udal berriak gehitzea (urtean bat gutxienez)</i>	X	X
<i>2014-2023ko euskal lankidetzaren publikoari buruzko produktu analitiko bat garatzea</i>	X	

Erkidegoko, estatuko, Europako eta nazioarteko lankidetzarako beste erakunde eta eragile batzuekin artikulazio eta koordinazio handiagoa izatea

Ekintza nagusiak	2025	2026
Beste autonomia-erkidego batzuekin eta Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzarekin artikulatzea <i>(urtean hiru gutxienez)</i>	X	X
eLankidetzaren eta Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentziaren artean elkarlanean aritzea Guatemalan, trantsizio-justiziaren arloan	X	X
Nafarroako uraren eragileak eta lankidetzarako eragileak AKUALen (Erdialdeko Amerika-Euskadiko ur eta saneamenduaren arloko erakundearteko lankidetzaren programa) sartzea	X	
Lankidetzaren deszentralizatuaren garrantzia nabarmentzeko nazioarteko sareetan parte hartzea	X	X
Nazioarteko lankidetzaren politiken intzidentzia- eta eztabaida-espazioetan parte hartzea (bitan gutxienez)	X	X

Euskadiko lankidetzarako eta elkartasunerako eragileekin gogoetarako eta lan artikulatua egiteko espazioak sustatzea

Ekintza nagusiak	2025	2026
Euskal lankidetzaren eta elkartasunaren egoeraren gaineko bost urtean behingo txostena egiteko oinarriak definitzea	X	X
(H)ABIAN 2030 gizarte-erlaketarako hezkuntzaren euskal estrategiaren komunikazio-estrategia definitzea	X	
(H)ABIAN 2030 gizarte-erlaketarako hezkuntzaren euskal estrategiaren tarteko ebaluazioa egitea	X	X
Kolonbia Mahaia sustatzea <i>Bakea eraikitzeko topaketa-saioak, esperientzia-trukeak eta prestakuntza (urtean bi gutxienez)</i>	X	X
<i>Eragile berriak gehitzea (bi gutxienez)</i>	X	X
<i>Cauca iparraldean ekimen bat garatzea eta sustatzea</i>	X	X
Finantza-lankidetzarako tresna garatzea Euskadiko Finantza Lankidetzarako Aholkularitza Taldearen esparruan	X	X

6 Ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa

Lankidetzatik eta elkartasunetik sustatzen diren prozesuetarako errealitatea sakon ulertu behar da eta gure jardunbideak aztertu eta hobetu behar dira. 2025-2026 aldian, 3/2024 Legeak ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa hobetzeko ezartzen dituen aurreikuspenen testuinguruan, prestakuntzarako eta esperientziak trukatzeko espazioak, ebaluazio-kultura eta lankidetzaren eta elkartasunaren arloko ikerketaren sustapena bultzatzen jarraituko dugu.

Prestakuntzarako, esperientziak trukatzeko eta ikaskuntzarako espazioak garatzea

Ekintza nagusiak	2025	2026
eLankidetzak sustatutako eta lankidetzan antolatutako jardunaldiak garatzea		
<i>Afrikari eta babesari buruzko jardunaldiak</i>	X	
<i>Prestakuntzarako eta Esperientziak Trukatzeko Espazioa – ekintza humanitarioaren eta ingurumenaren arteko lotura</i>	X	
<i>Heziketa Topaketak (Hezkuntza Sailarekin)</i>	X	X
<i>Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Jardunaldiak (Euskadiko GGKE-en Koordinakundearekin eta HEGOArekin)</i>	X	X
<i>Genero-berdintasunaren aldeko erakunde-kulturaren aldatetari lotutako esperientziak trukatzeko eta formatzeko jardunaldiak (Euskadiko GGKE-en Koordinakundearekin)</i>	X	X
<i>Garapenerako Estrategia Positiboen Jardunaldiak (Bilboko Udalarekin)</i>		X
<i>Klima Topaketak (IHOBerekin)</i>	X	X
eLankidetzak sustatutako elkartzeko eta gogoetarako espazioak garatzea, arreta berezia jarriz ikaskuntzan		
<i>Geografikoak (lau gutxienez)</i>	X	X
<i>Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babesa (bi gutxienez)</i>	X	X
<i>Herri indigenak eta lankidetzak (bi gutxienez)</i>	X	X
<i>Genero-berdintasunaren aldeko (GBA) prozesuen aholkulari bideratzaileak (gutxienez bi)</i>	X	X
<i>Ekintza humanitarioan parte hartzea eta kontuak ematea (gutxienez bat)</i>	X	
eLankidetzak gure esperientzia sozializatzeko konferentzietan, jardunaldietan eta azterketetan parte hartzea (gutxienez hamar urtean)	X	X
eLankidetzak gure ezagutzan sakontzeko eta aliantzak sustatzeko konferentzietan eta jardunaldietan parte hartzea (gutxienez hamar urtean)	X	X

Ebaluazio-kultura sustatzea: ebaluazioak eta sistematizazioak

Ekintza nagusiak	2025	2026
eLankidetzak ebaluazio-prozesuak sustatzea <i>Proiektuen (PRO) tresnaren ebaluazio mistoa</i>	X	X
<i>Lagundutako ekimenak eta prozesuak ebaluatzea, tresnen esparrua berrikusteko (sei ebaluazio gutxienez)</i>	X	X
Sistematizazioak eta eLankidetzaren esperientziaren barne-azterketak garatzea <i>Genero-berdintasunaren alde (GBA) erakundeetan 2018tik izandako aldaketa-prozesuen sistematizazioa.</i>	X	
<i>Sexu- eta genero-dibertsitatearen ikuspegia txertatzeari buruzko gogoetaren sistematizazioa</i>	X	
<i>Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren proiektuak (PRO-K3) ixteko bileren sistematizazioa ikaskuntzari dagokionez, (H)ABIAN 2030 gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren euskal estrategiaren esparruaren barruan</i>	X	
<i>2018-2024 aldian Afrikan sustatu diren ekimenen azterketa</i>	X	
<i>Diruz lagundutako ekimenen esparruan finantzatutako ebaluazioen kalitatearen eta erabilgarritasunaren azterketa</i>	X	X
<i>Pertsonekin lotutako eLankidetzaren tresnak aztertzea, tresnen esparru berrirako egokitzapena zehazteko</i>		X
Egindako ebaluazioen, sistematizazioen eta azterketen sozializazioa (hamar gutxienez)	X	X
Diruz lagundutako ekimenen esparruan finantzatutako ebaluazioetan parte hartzea (bat gutxienez)		X

Ikerketa sustatzea lankidetzaren eta elkartasunaren arloan

Ekintza nagusiak	2025	2026
Ikerketen eta azterketen garapena		
<i>Lankidetzaren deszentralizatuari buruzko urteko txostena</i>	X	X
<i>Ekintza humanitarioaren eta ingurumenaren arteko loturari buruzko azterketa</i>	X	
<i>Partaidetzari eta xede-biztanleriari kontuak emateari buruzko azken azterlana (ekintza humanitaria)</i>		X
<i>Habana Hiriko Historialariaren Bulegoaren eta Euskadiko lankidetzaren arteko harremanari buruzko argitalpena</i>		X
Egindako ikerketen eta azterketen sozializazioa (urtean bi sozializazio gutxienez)	X	X
Diruz lagundutako ekimenen esparruan finantzatutako ikerketei eta azterketei buruzko analisia	X	
Euskadiko unibertsitate-sistemeekin koordinatzea, lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa hobetzeko	X	X

7 Komunikazioa, gardentasuna eta kontuak ematea

3/2024 Legeak balio solidarioak sustatzearen eta herritarren jarrerak eta portaerak aldatzearen garrantzia jasotzen du, gizarte bidezkoagoak, parekideagoak eta inklusiboagoak sortzeko. Horri ekarpena egiteko asmoz, eLankidetzaren komunikazio-estrategia berri bat definituko dugu eta komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzak sustatzeko esparrua izango da. Halaber, gardentasuneko eta kontuak emateko ekintzak garatuko ditugu.

eLankidetzaren indartzea komunikazioaren arloan

Ekintza nagusiak	2025	2026
eLankidetzaren komunikazio-estrategia definitzea	X	
eLankidetzaren <i>rebrandinga</i>	X	
Lankidetzarako eta elkartasunerako jarduketan sentsibilizaziorako eta kontuak emateko produktu komunikatiboak garatzea (urtean hamar produktu gutxienez)	X	X
eLankidetzaren aurkezteko produktu komunikatiboa garatzea		X
EITBrekin lankidetzaren hitzarmena garatzea	X	X

Komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzak sustatzea

Ekintza nagusiak	2025	2026
3/2024 Legea bereganatzea eta zabaltzea	X	X
Euskadiko lankidetzarako eta elkartasunerako balioak eta ekintzak dibulгатzea komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak garatzeko (urtean bost kanpaina gutxienez)	X	X
Komunikabideetako presentzia sustatzea <i>Telebista- eta irrati-programetan agertzea (gutxienez 30 aldiz urtean)</i>	X	X
<i>Komunikabideetako agerraldiak areagotzea (urteko % 10eko hazkundea)</i>	X	X
Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babeserako eta eragin politikorako komunikazio-protokoloa abian jartzea	X	
Afrikaren gaineko ezagutza eta Afrikako kolektiboek Euskadin egiten duten lana sustatzeko eta Afrikaren eta Euskadiren arteko harremana indartzeko ekintzak sustatzea (urtean bi gutxienez)	X	X

Gardentasuneko eta kontuak emateko ekintzak sustatzea

Ekintza nagusiak	2025	2026
Eusko Jaurjaritzaren Berdintasuneko eta Garapenerako lankidetzako Batzordean agerraldia egitea (urtean bat gutxienez)	X	X
eLankidetzak komunikazio-produktuak egitea, gardentasunari dagokionez (urteko memoria)	X	X
Gardentasun-plataformei datuak ematea (urtean sei aldiz ematea gutxienez)	X	X
eLankidetzaren webgunea gardentasunerako tresna gisa indartzea (urtean 80.000 bisita gutxienez)	X	X

8 Plangintza

Gobernuaren ikuspegi bateratua sustatzeko apustuaren barruan, 3/2024 Legeak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren lankidetzarako eta elkartasunerako hainbat urteko plangintza zehaztu behar dela. Plan hori 2025ean definitzea espero da, eta, esparru horretan, eLankidetzaren hurrengo hainbat urteko plangintza zehaztu beharko dugu, 2027tik aurrera aplikatzeko. Gainera, eLankidetzaren plangintza sektorialak edo espezifikoak berrikusi eta, hala badagokio, eguneratuko ditugu.

Lankidetzarako eta elkartasunerako politika

Ekintza nagusiak	2025	2026
Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren lankidetzarako eta elkartasunerako hainbat urteko plangintza definitzea (Eusko Jaurlaritza osoa)	X	
Eragile anitzeko elkarriketa-prozesua garatzea	X	X
eLankidetzaren 2027tik aurrerako lankidetzarako eta elkartasunerako hainbat urteko plangintza definitzea		X

eLankidetzaren plangintza sektorialak edo espezifikoak

Ekintza nagusiak	2025	2026
Genero-berdintasunaren alde <i>eLankidetzaren 2021-2024ko Genero Berdintasunaren Alde Erakundea Aldatzeko I. Plana berrikustea</i>	X	
<i>Hala badagokio, eguneratzea edo hurrengo aldirako dokumentu berri bat definitzea</i>	X	
Ekintza humanitaria <i>2018-2026ko Ekintza Humanitarioaren Estrategiaren Ebaluazioa</i>		X
<i>Hala badagokio, eguneratzea edo hurrengo aldirako dokumentu berri bat definitzea</i>		X
Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, elkarteak, komunitateak eta sareak babestea <i>2024-2026rako Babeserako Bide Orria berrikustea</i>		X
<i>Hala badagokio, eguneratzea edo hurrengo aldirako dokumentu berri bat definitzea</i>		X
Afrika <i>2025-2026rako Afrikako Bide Orria berrikustea</i>		X
<i>Hala badagokio, eguneratzea edo hurrengo aldirako dokumentu berri bat definitzea</i>		X
Gizarte-eraldaketarako hezkuntza <i>2026-2030 aldian eLankidetzak (H)ABIAN 2030 strategiari egingo dion ekarpena zehaztea</i>		X

9 Kudeaketa

Lankidetzarako eta elkartasunerako politika hedatzeko, besteak beste, administrazio publiko arina eta dirulaguntzen araudi espezifikoa beharko dira, 3/2024 Legean jasotzen den moduan. Gainera, lantalde egonkor eta espezializatuak finkatu behar dira –kasu honetan, eLankidetzan–. Horretarako, 2025-2026 aldian, araudiaren garapenarekin, administrazio berrikuntzarekin eta pertsonekin lotutako ekintzak sustatuko ditugu.

Araudiaren garapena

Ekintza nagusiak	2025	2026
Dirulaguntzen tresnak aldatzea, 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea egokitzeko	X	
Lankidetzarako eta elkartasunerako laguntzak eta dirulaguntzak arautzen dituen araudi berezia garatzea	X	X
eLankidetzaren araudia garatzea 3/2024 Legea egokitzea		X

Berrikuntza administratiboa

Ekintza nagusiak	2025	2026
eLankidetzaren kudeaketa-aplikazioak zabaltzea eta etengabe hobetzea		
Lan-poltsak kudeatzeko aplikazioa sortzea	X	X
<i>Zuzeneko dirulaguntzen eta dirulaguntza izendunen modulua garatzea</i>	X	X
Dirulaguntzak kudeatzean adimen artifiziala erabiltzeko aukera aztertzea	X	X

Pertsonak

Ekintza nagusiak	2025	2026
eLankidetzaren Enplegu Publikoaren Eskaintzaren prozesua definitzea	X	X
Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ezartzea eta prebentzio-programa egitea.	X	
Faktore psikosozialak ebaluatu ondoren, ekintza-plana definitzea, lanaren diseinua, antolaketa eta kudeaketa hobetzeko	X	
eLankidetzako langileen prestakuntza-ibilbide pertsonalizatua egitea	X	

10 Aurrekontua

Gobernu Programaren 135. konpromisoak ezartzen du finantzaketarako baliabide egonkorrek bideratuko direla lankidetzarako eta elkartasunerako politikara, eta aurrerapausoak emango direla Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren % 0,7 bideratzeko. Horregatik, 2030ean % 0,7ra iristeko, etengabeko hazkunde-ibilbidea ezartzea proposatzen dugu.

3/2024 Legeak Gobernu osoaren ikuspegiari eta garapen jasangarrirako politiken koherentziari egiten dien erreferentzia aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren garapenerako dirulaguntza ofizialen % 10 inguru sailetatik, erakundeetatik eta organismoetatik eratorriko da, eLankidetzatik harago.

Plangintza horietatik abiatuta, hau izango da datozen urteetan jarraitu beharreko ibilbidea:

	2025	2026	2027	2028	2029	2030
eLankidetzak	% 0,37	% 0,42	% 0,47	% 0,53	% 0,58	% 0,63
Beste sail, erakunde eta organismo batzuk	% 0,04	% 0,04	% 0,06	% 0,06	% 0,07	% 0,07
Gobernu osoaren guztizkoa	% 0,41	% 0,46	% 0,53	% 0,59	% 0,65	% 0,70

Termino absolutuetan, estimazio hau aurkeztu dugu eLankidetzarentzat eta planak jorratzen duen aldi osorako, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek egiteko prozesuan egon daitezkeen gorabeheren arabera aldatu egin daiteke.

2025	2026
58.831.629 €	67.000.000 €

11 Jarraipena

2025-2026ko Bi urteko Planaren exekuzioaren jarraipena eLankidetzaren urteko memorietan islatuko da. Plan operatiboa denez, ez da aurreikusten plangintza horren amaierako ebaluaziorik egitea.

Oro har, planaren jarraipena hemen planteatzen den moduan egingo da:

- Baliabideak. (i) Aurrekontuaren (dokumentu honen 10. atalean), (ii) ekintza positiboan (aurrekontu-erreserbak) eta (iii) tresna bakoitzeko funtsen banaketaren (3. Atalean) betetze maila jasoko da.

Gainera, hainbat aldagairen arabeko funtsen esleipena aztertuko da, hala nola banaketa geografikoa edo 2030 Agendari egiten dion ekarpena aintzat hartuta.

- Prozesua. Jasotako ekintzen garapenaren berri emango da 4. atalean. Eragile anitzeko elkarrizketa-prozesua, 5. Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren koherentzia eta koordinazioa, 6. Ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa, 7. Komunikazioa, gardentasuna eta kontuak ematea, 8. Plangintza, 9. Identifikatutako adierazle kuantitatiboan kudeaketa, hala badagokio.

Horrez gain, 2025eko eta 2026ko datuekin osatu ahal izango da 2018-2024ko IV. Gida Planaren prozesuan lehenetsitako adierazleen multzoa, lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren oinarritzko ildoak eratzeko jarraitzeko.

- Irismena. Laguntzen ditugun herrialdeetan eta lurraldeetan lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren irismen kuantitatibora hurbiltzeko, biztanleria subjektuaren eta lagundutako erakundeen berri emango dugu, bai termino orokorretan, bai plan horren zeharkako lehenetsunak, lehenetsun sektorialen eta geografikoen ekintza positiboekin lotuta.

Planaren jarraipenari dagokionez, 2026rako aurreikusitako ekintzak berrikusi eta, hala badagokio, egokitu ahal izango dira, eLankidetzako 2025eko ekintzen garapenaren eta irismenaren arabera.

Gainera, 2025-2026 Bi Urteko Planaren jarraipena egingo da aldi horretan indarrean dauden eLankidetzaren plangintza sektorialen eta espezifikoen jarraipenarekin artikulatuta: 2018-2026rako Ekintza Humanitarioaren Estrategia, 2024-2026rako Babeserako Bide Orria, 2025-2026rako Afrikako Bide Orria eta, hala badagokio, komunikazio-estrategia berria, genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko plan eguneratua eta (H)ABIAN 2030 gizarte-eraldaketarako hezkuntza-estrategiari eLankidetzak egindako ekarpenaren dokumentua.

Azkenik, plana exekutatzeko garaian, malgutasun-printzipioa izan behar da nagusi, gure ekintzak testuinguru aldakorretara egokitu ahal izateko. Gainera, barrura begira, *trantsizioko* plana exekutatu bitartean Gobernu osoaren hainbat urteko plangintza definituko da eta eragile anitzeko elkarrizketa-prozesua garatuko da. Hori izango da hain zuzen ere eLankidetzaren hurrengo hainbat urteko plangintzaren oinarria. Plan horren exekuzioa eta bi prozesu horiek garatu eta amaitzeko prozesua egokitzeko baliteke malgutasun jakin bat behar izatea, benetako koherentzia eta denborazkoa bermatzeko. Nolanahi ere, plan honek duen laguntzen eta dirulaguntzen erreferentzia-esparruak indarrean jarraituko du eLankidetzaren hainbat urteko plangintza berria onartu arte.